

Ohar batzuk fonologiaren magia¹

Some notes on the magic of phonology

Aritz Irurtzun*
CNRS-IKER

ABSTRACT: In acts of magic or in supernatural rituals it is often the case that speech acts are performed in the search of obtaining the desired supernatural result. In this article I provide a first analysis of the words and formulæ that (allegedly) have been employed among Basque speakers, identifying patterns of phonological markedness in them. I analyze this as a departure from everyday speech, as if «non-natural» speech would be emically conceived as more plausibly reflective of supernatural powers and conducive to the desired supernatural effects.

KEYWORDS: Magic; *voces magicæ*; markedness; formula; ideophone.

LABURPENA: *Magia edota naturaz gaindiko helburuak dituzten erritualetan usu hizketa-ekin-tzak erabiltzen dira dena delako helburua lortzeko. Artikulu honetan euskal usadioan ekintza magi-koetarako erabili izan (omen) diren hitz eta formulei lehen begiratu bat ematen diet haietan marka-rutasun fonologikoa identifikatuz. Hau eguneroko hizkuntzatikako aldentze baten moduan aztertzen dut, emikoki hizkera «ez naturalaren» erabilera naturaz gaindiko botereekin lotzen delakoan.*

HITZ GAKOAK: *magia; voces magicæ; markatutasuna; formula; ideofonoa.*

¹ Eskerrik asko Xarles Videgain, Julen Manterola, Maia Duguine, Ander Egurtzegi eta Varun deCastro-Arrazolari lan hau paratu bitartean haiekin izandako eztabaidengatik. Lan hau ondoko diru-laguntzei esker garatu da: CNRS-MITI 80|PRIME 2021 (PALEOSIGNES), ANR (ANR-21-CE27-0005 – MIND2WALL), Région Nouvelle Aquitaine (PARL); PLRS (InSHS-CNRS) eta AEI (PID2021-128404NA-I00).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Aritz Irurtzun. IKER UMR 5478-CNRS. Gaztelu Berria, 15 Paul Bert plaza (64100 Baiona). – aritz.irurtzun@iker.cnrs.fr – <https://orcid.org/0000-0003-1553-6679>

Nola aipatu / How to cite: Irurtzun, Aritz (2023). «Ohar batzuk fonologiaren magia», *ASJU*, 57 (1-2), 515-538. (<https://doi.org/10.1387/asju.25966>).

Jasoa/Received: 2022-11-04; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

Jose Ignaciori,
miresmenez eta esker onez.
Urte luzez segi dezazula
fonologiaren magiaz gozaten,
eta gozarazten.

1. Sarrera

Ildo guztietako hizkuntzalariok oso gogokoa dugu «hizkuntzak gizaki egiten gaituelako» ideia (ik. besteak beste, Crystal 1998; Christiansen & Kirby 2003; Smith 2005; Bickerton 2009; Fitch 2010; edota Friederici 2017, non ideia horren (ia) hitzez hitzeko aipuak aurki daitezkeen). Nolabait, gure ikerketa-gai eta jardunari usu aitortzen ez zaion halako sakontasun eta transzendentzialitatea egozten dio. Nolanahi ere, hau ez da hizkuntzalarion burutazio zeken bat; aitzitik, hamaika pentsalari eta ezin konta ahala herri-pentsamenduren barne-muinetan sustraitutakoa da; hizkuntzak beste (g)izakietatik bereizten gaitu. Horren ondorioz, gizateriaren historian, zeinahi garai eta lekutan oparoki jasotakoa da gizatalde batek bestea arbuiatzea beste hizkuntza bat erabiltzen duelako argudioarekin, hartara GU (gizaki; jainkoaren/jainkoen begikoak) *vs.* HAIEK (gizatxar; jainkoaren/jainkoen aurkakoak) aurkaritza eginenez; hots, hizkuntzaren arabera eraiki ohi ditugu gizataldeak. Ezaguna da, esaterako, Grezia klasikoko hiritarrak *vs.* βάρβαρος (barbaroak) aurkaritza, delako barbaroen balizko hizkera mordoiloaren onomatopeiaren gainean egindako gutxiespen-izenarekin (arrotzak *bar-bar*-ka hitz egiten entzuten omen zituztelako greziarrek).² Askotan giza-taldeok gure burua eta besteak hitz egiten dugun hizkuntzaren arabera definitzen/izendatzen ditugu, eta hemen ere ezaguna da euskara *vs.* erdara aurkarizatitako *euskaldun vs. erdaldun* aurkaritza.³

Adibide hauetan bi gizatalde konparatzen badira ere hizkuntzalaritza eta etnografiako lanetan bestelako fenomeno batzuk ere jaso dira. Horietako batzuetan gizakion hizkuntza *vs.* animalien hizkuntza da aurkaritzan jartzen dena. Herri-ikuspegi batetik, gizakiok normaltasuna egikaritzen badugu (hau da, *norma ezartzen* badugu), (beste) animaliek nolabaiteko anormaltasuna egikaritu beharko dute (hau da, *norma bihurritu*). Cocopaz⁴ adibidez, animalien balizko berbaldiez kontu ematean eguneroko hizkuntzarekiko fonologiazko aldaketak egiten dira (Langdon 1978). Eguneroko Cocopak badu /hʷ/ lamino-prepalatal ahoskabe albokaria, doi-

² Ildo beretik doa XII. mendeko Compostelarako erromes Aimery Picaud de Parthenay-le-Vieux-k euskaldunak hizketan entzunda *Codex Calixtinus*-ean idatzitakoa (Michelena 1964: 50):

(i) Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares. Barbara enim lingua penitus habentur [...]

Alegia, «Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke, hizkuntza erabat basatia baitute» (Bilbaoren 1994ko itzulpena).

³ Non, etimologia segurua ez bada ere, *erdara* forma bera lehenagoko *erdi-era* forma batetik heldu datekeen (eskerrik asko J. Manterolari etimologia honen ziurgabetasunaz ohartarazteagatik).

⁴ Arizonako Yuma eta Sumertonen eta ondoko Mexikoko eskualdean hitz egiten den hizkuntza yumarra.

doi espirantizatu; baina animaliek esaten duketen zerbait, edo haiekin erabiltzen den ‘hizkuntza’ errepikatzean ebakera bereziarekin produzitzen da soinu hau, ezpainen alde bateko irekierarekin eta aire-jarioa ahoaren alde bakar horretatik bideratuz. Areago, «eguneroko Cocopatik» «animalien Cocoparako» aldaketa ez da ebakera hutsezkoa, animalien Cocopan /ʎ/ fonema hitz guztietan sartzen baita, eguneroko Cocopako beste fonemaren bat ordezkatur. Ondoren adibide batzuk ematen ditut eguneroko Cocopaz (EC) eta animalien Cocopaz (AC), fenomenoa ilustratzeko (ik. Langdon 1978: 11):

- (1) EC: makáy mwayá·c myu·?
 AC: makáʎ mʎá·c mʎu·?
 non zu.izan.inguru zu.izan
 ‘Non izan zara?’
- (2) EC: nʎaşʎáw pmwí·a.
 AC: nʎaʎáw ʎʎpmwí·a
 nire.haurrak haiek.zu.ikusi.galdera
 ‘Nire seme-alabak ikusi dituzu?’

Honela, animalia eta gizakien arteko elkarrizketak izan ditzakegu, non bakoitzak bere «hizkuntza» erabiltzen duen. Ikus, adibidez, tortillak egiten ari den emakume baten eta katu baten arteko elkarrizketa, non emakumeak EC darabilen eta katuak AC, behean katuaren mezu bera ECn emanik, konparaketarako (ik. Langdon 1978: 12):

- (3) Emakumeak (EC erabiliz): kəmyúç pəmwác məyúç?
 INDEF.zu.izan han.zu.eseri zu.izan.GALD
 ‘Zergatik zaude han eserita?’
- Katuak (AC erabiliz): yú·ʎ məyáʎ məxánʎinpa
 HAR. tortilla miretsi.esan.ere.ENF
 aʎú·km kʎkʎá·y kʎkʎá·ypinʎ
 laster haragia haragia.ERAK
 məší·ʎkm məyáʎpinʎ
 zu.frijitu.GER tortilla.ERAK
 mʎmínkm əʎá·xicima.
 zu.bildu.GER ni.jan.GER.ni.esan.Q
 ‘Uau! Miraz nago zu tortillak egiten ikusten. Laster haragia frijituko duzu, tortillak hartu eta haietan bildu, eta nik zenbait jango ditut.’
- Katuarena ECn: yú·ş myáʎ mxánʎcinʎpa aşú·km kʎkʎá·y kʎkʎá·ypinʎ
 mšíʎkm myáʎpinʎ myá·k⁵ mşmínkm aşa·xicima.

Ikus daitekeenez, gizakiok egunero hitz egiten dugun modua bihurtzen da animalien ahotan, espezie bakoitzak bere *espezielektoa* erabiliz.

⁵ *myá·k* hitzak ez du ACko baliokiderik.

Antzeko prozesu bat gertatzen da Takelmazko⁶ grizzly hartz-hizkerako *ʔ* sabai-kari ahoskabearen sarrerarekin (Sapir 1910). Zehazki, Sapir (1922)-n jasotzen denez (8. or., 2. oin-oharra):

In the myths, *ʔ* is freely prefixed to any word spoken by the bear. Its uneuphonic character is evidently intended to match the coarseness of the bear, and for this quasi-rhetorical purpose, it was doubtless derisively borrowed from the neighboring Athapascan languages, in which it occurs with great frequency. The prefixed sibilant *s·* serves in a similar way as a sort of sneezing adjunct to indicate the speech of the coyote. *Gwi'di* WHERE? says the ordinary mortal; *ʔgwi'di*, the bear; *s·gwi'di*, the coyote.

Pentsa liteke aspaldiko kontuak direla hauek, eta urruneko eta galzorian dauden kulturei besterik ez dagozkienak, baina animalien hizkera berezituarena gaur-gaurko kontua ere bada.⁷ Garai berriagoetara eta hurbilagokoak diren inguruneetara etorrira, internet inguruan garatu den *lolspeak* hizkerak katuen (*lolcats* direlako) balizko hizkera jasotzen du, horretarako oinarrian duen ingelesean aldaketa morfo-sintaktiko eta fonologikoak eraginez (Fiorentini 2013). Seguruen (4)-koa da *Lolspeak*-erako adibide ezagunena, interneteko memetan usatua izan dena. Bertan polaritatezko galderetarako Denboratik Konplementatzailerako buru-mugimendurik (T-to-C) eza eta txistukarien txandakatzea ikus daitezke, besteak beste:

- (4) Ingelesa: Can I have a cheeseburger?
Lolspeak-a: I can has cheezburger?

Adibide hauek guztiek erakusten dute gizakioi oso naturala egiten zaigula gizataunaren mugetatik at dauden izakiei hizkera («hizkuntza») berezi bat esleitzea, nolabait haien ez-gizatiartasunaren erakusgarri delakoan.⁸

Jarraian ildo bereko baina izaera desberdineko fenomenoak aztertuko ditut: botere supernaturalen frogatzat hartzen diren mintzamoldeak, fonologian egiten diren bihurketetan zentratuz (ikus Irurtzun [2022] lehen analisi konparatibo baterako).


⁶ Takelma Oregon hego-mendebaldean hitz egiten zen hizkuntza da, Sapirrek berariaz ikertutakoa. Azken hiztuna, Frances Johnson (Gwíšgwashān berezko izenez), 1934 urtean hil zen.

⁷ Euskaraz horren sistema aberatsik izan ez badugu ere, animalia desberdinei agindu mota desberdinak emateko izan dugu modu bereziturik (ik. Lekuona 1921). Honela bada, behi eta idiei etortzeko agintzeko *toz* erabili izan bada ere, astoekin *potx* erabili izan da, ahuntzekin *txiu-txiu*, akuriek *kui-kui*, katuekin *mox-mox*, eta oiloekin *purra*. Beste agindu batzuek ere antzeko aldakortasun-ereduak erakusten dituzte, jakina. Kontrakoa ere izan izan da, Europako hainbat tokitan bezala hartza errespetu berezia zor zaion animalia izan da euskal usadioan (Üthürralt Saint-Esteben, 2020), eta beste hainbat tokitan bezala ere haren izena tabu izan dateke, aipatuz gero erakar genezakeelakoan, zorigaitza ekarriz. Honela, *hartz* izena animalia benetako izenaren tabua ekiditeko itzul-biraketa deskriptibo batetik heldu dateke: *har + -tz* (arre kolorekoa), ikus Lakarra, Manterola & Segurola (2019).

⁸ Esan bezala, hau mota askotako kultur adierazpidetan gertatzen da; esaterako, *Star Wars*-eko Yodaren hitz-hurrenkera bihurrian, edota Disney-ren *The Jungle Book* filmeko suge gaiztoaren (Kaa) txistukari hiperartikulatuetan, zein B. Atxagaren *Bi anai* eleberriko sugearen mintzo lapurtarreen kasu (eskerrik asko J. Manterolari oharregatik). Ildo beretik, ohikoa da H. Purcell-en *Dido & Aeneas* opearako sorginen kantaldietan ahots doinu lau eta sudurkariak eta txori-karranka-itxurako barre-algarak sartzea; adibidez R. Jacoben *Harmonia Mundi*-ko (1989) bertsioan. Ikus beherago sorgin-hizkeren inguruan.

2. Hizkuntzaren deabrukeriak

Gizatasuna hizkuntzarekin lotzearen ifrentzu naturala da hizkuntza haren mugak gainditzen dituen gizatasunetik at kokatzea. Halakotzat jotzen da errealitatea hainbat eta hainbat kulturatan eta halaxe jasotzen da hainbat herri-ipuina eta lan teologikotan. Europan zehar —eta Euskal Herrian nabarmen (ik. Idoate 1978)— literalki ikaragarriko eragina izan zuen Heinrich Kramer eta Jacob Sprenger-en 1487ko *Malleus Maleficarum* (*Sorginen mailua*) liburu famatuan jasotzen denez, pertsona baten deabrutzea haren hizkuntza-portaeratik ondoriozta daiteke, izan ere badira «aliquæ operationes dæmonum quæ nullo modo possunt ex aliqua naturali causa procedere: puta quod aliquis obsessus a Dæmone loquatur linguam ignotam»:



1. irudia

Aipatutako *Malleus Maleficarum*-aren pasartea,

Herzog August Bibliothek Wolfenbüttel-eko faksimiletik

URL: <https://diglib.hab.de/inkunabeln/151-quod-2f-1/start.htm?image=00046>

Hots, «badira deabruen ekintzak, inongo kausa naturaletatik ezin erator daitezkeenak. Hala nola deabrututako norbaitek hizkuntza ezagun batean hitz egiten duenean».⁹ Eta, berriz ere, hau ez da errenazimendu urruneko kontua, gaur-gaurko liturgia katolikoetan ere aintzakotzat hartzen den printzipioa baizik (ik. besteak beste, Fortea 2004).¹⁰

Hizkuntza arrotzena ez da halabeharrez erabateko gertakaria izan behar, izan ere, salatutakoaren ama-hizkuntza erabiltzea ere sorginkeria-zantzutzat jo izan da, salatariaren hizkuntza berbera ez denean. Ezaguna da, adibidez, Euskal Herriko sorgin-ehizetan halako «ebidentziak» erabili izan zirela: 1575ean Logroñoeko Inkisizioak Ano-

⁹ Bertako adibide bat: deabrua dei lezaketelakoan Martín de Arlés nafarrak 1510ean argitaratutako *De Superstitionibus* lanean salatzen dituen hitz arrotzak (*anansapta*-eta; ik. López Gurpegui 2011). Pentsatzekoa da haietako batzuk euskaldunek erabilitakoak zirela Martín de Arlés Oibarreko artxidiakono baitzen garaian, eta testuan euskarazko testutxo bat ere agertzen delako (Oroz 1981), baina hark salatzen duen elizetako arao-liburua ez da aurkitu, eta ezin ziurtatu.

¹⁰ Halako balizko gaitasunak sorginei esleitu izan zaizkien metamorfosiarenarekin eta hegan egitearenarekin batera jarri behar dira. Hondarrean, horiek guztiak gizatasunaren muga normalak gainditzen dituzten izakiez ari garela islatuko lukete (ik. Mair 1969; Hutton 2017; edota Singh 2021-eko konparaketa-lanak).

tzibarreko Maria-Juani sorginkeria leporatu zion eta torturapean, hark onartu (behar izan) zuen ezen akerrak «le a ablado en bascuence y no en otra lengua» (Idoate 1951: 315).¹¹ Frogen ondorioz, inkisizioak urkatu egin zuen Anotzibarreko Maria-Juan. Araitzen ere, Maria Peruxaren deklarazioek diotenez Beltzebuk «les predicaba en bascuence y en la misma lengua les persuadía que renegasen de Dios Nuestro Señor» (Idoate 2001: 551)¹². Ildo beretik, Hondarribiko sorginkeria-prozesuan Isabel Garcia lekukoak (13 urte) deklaratu zuen esanez Maria de Illarrak deabruari euskaraz hitz egiten ziola eta honek ere euskaraz egiten ziola Mariari, eta «que el diablo en gascon llamaba vení acá los de San Sebastián, los del Pasaje y luego en vascuence llamaba las de Irún las de Endaya» (Arzadun 1909: 175).¹³

Bukatzeko, hau ez da inondik ere kristautasunaren ezaugarri berezia. Mundu zaballean oparoki jasotako jarrera da; esaterako Schlichter-ek (1981: 106) ondokoa jasotzen du Kaliforniako wintu indigenen artean:

It is possible that especially evil spirits always spoke through the shaman in a language other than Wintu. The Wintu language is a symbol of tribal identity and pride and as such could not be spoken by evil spirits. Evil comes from outsiders.

Azkenik, hizkuntza-aldaketaren magikotasuna sorginkeria-erakuslea izan badaiteke ere, ez da halabarrez hala izan beharrik, beste mota batzuetako helburu supernaturaletarako ere erabili baitaiteke. Horixe da, adibidez, hizkuntza liturgikoen kasua (latina, hebreera, ge'ez, palia, medefraidina..., ik. Adams 1947; Bennett 2018). Horietako askotan eredu foniko bereziak ikus daitezke, hala nola modalitate-aldaketak (ahozkoak izan beharrean zeinu-bidezkoak izatea, ik. Kendon 1988), edota eguneroko hizkuntzako inbentario fonologikoarekiko markatuak diren inbentario fonologikoak izatea. Esaterako, Australiako lardil nazio aborigenak lardil hizkuntza tangikoa erabiltzen du eguneroko jardueretan, baina errituetan damin hizkuntza berezia erabiltzen du. K. Hale-k (1973: 443) ondokoa dio damin hizkuntzaren inguruan:

The most spectacular, though by no means most interesting aspect of Damin is its phonology. [...] it has a number of consonantal segments which are totally lacking elsewhere in Australia. Among these are nasalized clicks (bilabial /m!/, dental /nh!/, apico-alveolar /n!/, apico-domal /ŋ!/, an ingressive lateral fricative (/L/), a glottalized, or ejective, velar stop (/k'/), and an ejective bilabial stop (/p'/).

Alegia, supernaturaltasunaren bila normaltasunaren arauak hainbat mailatan haus-tuten dituzte: hasteko, eguneroko hizkuntza beste hizkuntza batekin ordezkatzan dute; baina bestalde ere, hizkuntza magiko honen ezaugarriak bereziak dira, eguneroko hizkuntzatik oso bestelakoak ez ezik, mundu mailan ere oso markatuak direnak (beste inongo hizkuntzatan aurkitzen ez diren ebakinak erabiliz —aipatutako /L/ frikari late-ral ingresiboa kasu—, edota Afrikatik kanpo klikdun hizkuntza bakarra izanik).

Jarraian hizkuntzaz aldatu beharrean eguneroko hizkuntza aldatzen duten eredu-iei so egingo diegu.

¹¹ Idoatek (2001: 551) jasotzen duenez, deabruak ondokoa esan zion euskaraz neskari: *Eneaz* (enea haiz) eta *Erutako veradun* (enetako behar dun). Ik. ere Santazilia (2017).

¹² Aldiz, María Miguel de Orejak dioenez deabrua eleaniztunagoa da batzuetan: «suele ablar de muchas maneras, así bascuence, como romance y otras lenguas» (Idoate 2001: 551).

¹³ Testigantzen gaztelaniazko hitz ordenak ere euskal substratua isla lezake.

3. Hizkuntza beraren erabilera supernaturalak

Hizkuntzaz aldatzea muturreko efektu bat izan daiteke; askoz ohikoagoa da erritu supernatural bat egikaritzeko norberaren hizkuntza hein batean doitzea (eta hainbat mailatan egin daiteke, ik. Irurtzun 2022). Areago, Euskal Herrian, dakidala, ez dago jasota errituatarako hizkuntza berezirik erabili izan denik (erlijio handietako hizkuntza liturgiko klasikoez gain (latina, hebreera, arabiera klasikoa, antzinako eliza-eslaviera...)). Oro har euskaraz, gaztelaniaz edota frantsesez egin izan dira errituok. Hala ere, euskal usadioan, erritu supernaturaletan formula konkretuak —araoak— erabili izan dira hizketa-ekintza performatibo magikoak burutzeko helburuarekin. Araoak bi multzotan sailka daitezke: (i) hizkuntza soilekoak, hau da, euskarazkoak (3.1); ala (ii) ulertezinak, *voces magicæ* deitu izan direnak (3.2).

3.1. Arao gardenak

Euskal Herrian ikertzaileak kontu hauetaz arduratu direnean jaso dituzten formulak euskara soilekoak izan dira batik bat. Esaterako, M. Lekuonaren (1923), R. M. Azkueren (1935, 1942, 1947), J. M. Bidadorren (1994) edota J. Garmendia-Larrañagaren (2007) lanetan bildutako araoak euskara soilean egindakoak dira oro har, eta erabat gardenak helburu duten xedearekiko. Adibidez, M. Lekuonak ondo-koak jaso zituen Oiartzunen, besteren artean (Lekuona 1923: 85):

- (5) a. Itoko al-duk. Amen.
- b. Lertuko al-duk. Amen.
- c. Lepezurra autsiko al-dik. Amen.
- d. Amaika mila demoniñok erámango al-tek. Amen.
- e. Tximistak, burutik sartu ta orpotik atea ta érebenta afayo ingo al-dik. Amen.

Hebreeratikako *amen*-ez gain (euskal kristau usadioan ongi sartua dagoena), eguneroko euskarazko hitzez osatuta daude arao hauek eta erabat gardenak da zein den haien helburua. Izan ere giza hizkuntzen (hizkuntzaren) ezaugarri behinenetako bat gordetzen dute: konposizionalak dira; bestela esateko, araoaren esanahia haren pieza lexikoen esanahien eta haiek elkarrekin lotzeko moduaren funtzio bat da.

Badira ere formula magikoen egitura arketipikoa izan gabe, egitura misterioetsuagoa dutenak. Adibidez, Barandiaranek (1960: 34-35) ondoko formula jasotzen du Andoain, Oiartzun, Tolosa eta Urnietan lepoko gingilak sendatzeko:

- (6) Gaingillak dira bederatzi
 bederatziak zortzi
 zortziak zazpi
 zazpiak sei
 seiak bost
 bostak lau
 lauak iru
 iruak bi
 biak bat
 gaingillak egin dezala zirtzart.

(6)-ko formulari so eginez, ez da begi-bistakoa zertan diren gingilak bedera-tzi, edota zergatik desagertu behar diren halako formula bat esateagatik. Hau da, formulazioa bera hein batean opakua da bete nahi duen funtzioarekiko (errituen ezaugarri nagusia dena, Xygalatas 2022). Baina kontua da formula honek Erroma klasikoan duela jatorria, eta latinezkoa zela sortzez (ik. Heim 1892: 490-491). Latinezkoak *glandulæ*-ri egiten zion erreferentzia (*g-l-a-n-d-u-l-a-e*, 9 letra), aintzat hartuz 9-tik 1-erako erredukzioarekin gingilak ere erreduzitzen zirela, desagertze-raino:

- (7) Novem glandulæ sorores, octo glandulæ sorores, septem glandulæ sorores, sex glandulæ sorores, quinque glandulæ sorores, quattuor glandulæ sorores, tres glandulæ sorores, duæ glandulæ sorores, una glandula soror, novem fiunt glandulæ, octo fiunt glandulæ, septem fiunt glandulæ, sex fiunt glandulæ, quinque fiunt glandulæ, quattuor fiunt glandulæ, tres fiunt glandulæ, duæ fiunt glandulæ, una fit glandula, nulla fit glandula.

Halako logika aski usatua zen antzinate klasikoan (Versnel 2002). Hona, adibidez, odol-jarioak gelditzeko erabiltzen zen formula (*cucuma* ontzi bat izanik eta *sicy-cuma* agi denez < *siccus* (lehor) + *cucuma* izanik):

- (8) Sycyuma, cucuma, ucuma, cuma, uma, ma, a.

Ildo bertsutik, Bidadorrek (1994: 91) besteren artean ondokoak jasotzen ditu garitzak sendatzeko:

- (9) Bat, bat eta erdi, bapez ta erdi.
(10) Hau bat, hau bapez, hau bat hau bapez.

Edota Peillenek (1994: 141) txingola (zona) sendatzeko (11) jasotzen du Zube-roan, besteak beste:

- (11) Zazpi txingola, sei txingola, bost txingola, lau txingola, hiru txingola, bi txingola, txingola bat, batere txingola.

Latinezkoen eredura, beheranzko kontaktarekin gaitza bera desagertzen zelako logikaren gainean eraikitakoak dira.

Bestalde, ez dugu benetan euskal sorginei egotz lekiekeen formula magiko handirik testuetan. Etnografoek jasotako ipuin eta legendetan agertzen zaizkigunak euskara hutsezko berbaldiak dira gehienetan. Adibidez, (12)-ko formula —besteren artean Azkuek (1935) Zeanuritik Barkoxera dokumentatutakoa, edo Satrustegik (1970) Ur-diainen— oso ezaguna da euskal mitologian. Sorginek, ukendu magiko batez igurtzi eta gero ondokoa esaten omen zuten hegan egiteko:

- (12) Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik.

Kontua da formula hau ere ez dela alegiazko euskal sorginen sorkuntza originala. Aitzitik, antzekoak ongi dokumentatuta daude Europan. Herri germanikoe-tan, esaterako, *oben aus und überall an* ('Gainetik eta nonahi'), edota *oben aus und nirgend an* ('Gainetik eta ezerean gainean') esaten omen zuten aspaldiko sorginek (Lehmann 1898: 93; Bächtold-Stäubli & Hoffmann-Krayer 1987: 1425-1426), ik.

Azkue (1935: 381), eta antzeko formulak aurkitzen dira Errusia eta Ukrainan, esaterako.

Beste formula garden eta ezagun bat (13)-koa dugu, hainbat ipuinetan jasotakoaren arabera emandako aginduei iskin eginez gauetz etxetik kanpo ibiltzera ausartu zen gazte baten desagerketarekin batera entzun omen zena (ik., besteak beste, Barandiaran 2007):

(13) Eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat.

(12)-koa bezala, (13)-koa ere sorginkeriazko hainbat euskal kondairatan agertzen bada ere beste lurraldetan ere aurki daiteke, hala nola Tirolgo Meranon (*der Tag ist dein, (und) die Nacht ist mein* ‘eguna zurea da (eta) gaua nirea’; cf. Bächtold-Stäubli & Hoffmann-Krayer 1987: 776-777; Azkue 1942: 190).

Folklorezko ipuinetatik at, badira ere balizko sorginei egindako epaiketetan jasotako arao bakan batzuk. Hona P. De Lancrek (1612: 391-392) bere *Tableau de l'inconstance...* lan famatuan idazten duena sorginen prozedurei buruz:

Si bien que pendant trois mois ils ont de tres-grandes douleurs, mais à celles qui font plus affectionnees à son feruice, il leur applique vne certaine herbe avec laquelle la douleur s'appaise, & la chair demeure tellement stupifiée & amortie, qu'avec quelque instrument qu'on les pique, cette partie demeure tout à fait insensible.

Puis il leur baille aulli tost des recettes pour faire des fortileges, & vn crapaud pour le fouetter à loisir, & le faire enfler: & enflé qu'il est le pressant avec vn pied, il rend vne eau verte qui offence merueilleusement l'haleine & le sentiment. Il leur donne aulli de la ceruelle de petits enfants, des os de leurs pieds & mains, des pouldres d'vne infinité de fortes, des lerpens, viperes, falemandres, limaçons & l'herbe nommee Pied de loup, & de tous ces mauuais ingrediens ils en font des emplastres tres-dange-reux. Avec tout cecy les Sorcieres demeuret pour siennes, & çavantes en forcelerie & Magie, selon la conuention & pacte qu'il faict avec elles: il en faict les vnes Roynes & les autres seruantes.

Ces eaux, pouldres & fang affemblez, elles les sechent secrettement au feu & au Soleil, & s'oignent les bras, l'échine & les iointures, & avec le crapaud veftu elles volent de nuict comme des oyseaux.

Et lors qu'elles foignent elles difent & repetent ces mots *Emen betan, emen betan* qui signifie *icy & là, icy & là*.¹⁴

Formula bera aurkitzen da De Mongastón-en (1611) Zugarramurdiko sorgin-epaiketaren kronikan; haren arabera Maria de Zozayak —Errenteriako adineko emakumea— aitortu omen zuen Akelarerra iristean ezen «decia ciertas palabras en vas-cuence, que quiere decir *aquí y allí*».¹⁵

¹⁴ Ematen duen itzulpenagatik argi da transkribaketa-huts bat dagoela De Lancreren testuan eta *emen betan* dioen lekuan *hemen eta han* behar lukeela.

¹⁵ *Emen betan* euskal formulak gero bidea egin du nazioartean, hala frantsesezko testuetan (Victor Hugoren *Notre-Dame de Paris*-en), nola ingelesezkoetan (Dudley Costelloren *The Lancashire Witches*-en), alemanezkoetan (Heinrich Heineren *Der Doktor Faust. Ein Tanzpoem*-en), gaztelaniaz (Ramón J. Senderren *Emen betan (aquí estamos)*-en) edota errusierazkoetan (Dmitri Merezhkovskiren *Воскресшие богу. Леонардо да Винчи-н (Jainkoen berpizkundea. Leonardo da Vinci)*), ikus. Garate (1952). Berrikiago ere, Malesanctus *black metal* talde paristarrak ere bere abesti baten izenburutzat erabili du.

Bereziagoak dira kristautasunaren aurkaritzan eta hari iseka egiteko sorginek erabili omen zituzten bestelako formulak. De Fonseca-k (1611: 18), Logroñoko fedea- autoan ondokoa jasotzen du:

Toma tras esto el demonio vna hostia redonda negra, despues de auer hecho ciertos garabatos, con la mano yzquierda, que es con la q̄ diximos que haze todas sus acciones, guardádose de no hazer cruces con ellos, despues de auer dicho ciertas palabras, haziendo al modo que fuele hazer el Sacerdote Eclesiástico, cuando cósagra, y diziendo: *Este es mi cuerpo*, la leuanta en alto, para que todos la adoren, como lo hazen, cõ mucha deuocion los bruxos, dandose en los pechos, y diziendo vnas palabras en Bascuence: *Aquerragoity, aquerrabeyti*: que en nuestro language quiere dezir: *Cabron arriba y cabron abaxo, cabron arriba y cabron abaxo...*¹⁶

De Lancrek (1612: 457) ere iseka-arao bat jasotzen du:

- (14) In nomine Patrica, Aragueaco
Petrica, Agora, Agora Valentia,
Iouanda goure gaitz gouftia.

Bertan, kode aldaketa ikus daiteke hasierako latinezko *in nomine Patrica* euskarekin jarraitzen baitu.¹⁷ Antzeko formula adeigabeago bat ere ematen du (De Lancre 1612: 458):¹⁸

- (15) In nomine patrica, Aragueaco, Petrica, Castellaco Ioanicot, Equidac ipordian pot.

Azkenik, xvii. mendean, Burlatako sorgin baten segiziokoek (16) esaten omen zuten altxor-bila zebiltzanean (Idoate 1978: 223):

- (16) Aquer buru, chacur buru.

Eredu magiko interesgarrienak, aldiz, fonologia modu sortzaile eta sinbolikoan erabiltzen dutenak dira.

3.2. Fonologiaren magia

Gizatalde askotan fonologiaren bihurtzeak egiten dira helburu supernatural edota magikoen bila. Horrelakoetan patroi fonologiko interesgarriak ikus daitezke hizkuntzaz hizkuntza. Adibidez, Nigeriako iparraldeko hausa errituetan izpirituek

¹⁶ Formula hau De Mongastón-ek (1611) ere jasotzen du, eta ez da harritzekoa, izan ere Europan zehar errenazimenduko iruditeria literario eta sorgin-ehizetako arketipo bat zen (ik. Garate 1952, besteren artean).

¹⁷ *In nomine Patrica*-n begi-bistakoa da kristautasuneko formula trinitario klasikoari (*In nomine patris et Filii et Spiritus Sancti* (Mt 28,19)) iseka.


¹⁸ Formula bera jasotzen du Idoatek (1978: 160, 98. oin-oharra), 1670eko Burlatako prozesu bate- tik (ik. ere Caro Baroja (1992) eztabaidarako):

- (i) In nomine patrica
Araguesco patrica,
Castellaco Janicot,
Eguidac ipurdian pot

eguneroko hausaz bestelako hizkera bat erabiltzen dukete (Krings 1999). Izpirituen arrotzasunaren adierazgarri, hitz bukaerako bokalak sudurkaritzeko joera izaten dute (eta ez da kasualitatea izango europarrek hausa hitz egiten dutenean ere hala gertatzen baita), baina areago, hausazko hitzen aldakiak ere erabiltzen dituzte, hausazkoak arau morfo-fonologikoen bidez bihurtuta. Esaterako, hitz-hasierako kontsonantea /m/ edota /mw/-rekin ordezkatzen dute (17); edota hitz-amaierako azken bi silabak *-umaa* ala *-uwaa* silabekin (18):

- | | | |
|-----------------------|-------------------------|------------|
| (17) Hausa estandarra | Bòoríi izpirituen hausa | |
| ʔauree | mauree | ‘ezkontza’ |
| hausa | mausa | ‘hausa’ |
| suunaa | mwuunaa | ‘izena’ |
| ʔidòo | mwidòo | ‘begia’ |
| (18) Hausa estandarra | Bòoríi izpirituen hausa | |
| gàskiyaa | gáskumaa | ‘egia’ |
| laafiyàa | laafuwàa | ‘osasuna’ |

Ikusgarriago agian, Afrika mendebaldeko tenda etnien iniazio-erritu konplexuak egiten dituzte. Errituotan iniazioa egingo duen haurra hiltzen dela aintzat hartzen dute, heldua jaio dadin, eta errituak irauten duen egunetan eguneroko bedik hizkuntza alboratzen dute ma-moɖyèrèz hitz egiteko (ik. Ferry 1981; Storch 2011). Ma-moɖyèrè bedikaren gainean sortutako aldaki bat da, «alderantzikatze» prozesuz osatutakoa. Alderantzikatzeak, semantikoak izan ohi dira, hau da, antonimiazkoak (mundu zabaleko hainbat hizkuntza sekretutan bezala); honela GIZON adierazten duen hitza darabilte EMAKUME adierazteko, edo ZELAI adierazten duena MENDIREN ordez, baina alderantzikatze fonologikoak ere egiten dituzte; artikulazio puntuan aldaketak eginez:



2. irudia

Tenda iniazio-errituetan erabiltzen den hizkuntzako artikulazio-puntu alderantzikatzea (Ferry 1981 eta Storch 2011 lanetan oinarrituta)

Honela, *i-kon* (herria) → *dyo-pom* bilakatzen da (klase-markatze aurrizkia ere aldatuta, ohikoa dena hizkuntza sekretu honetan), eta *o-hojèn* → *ma-fomèn* (jan).¹⁹

Honelako eredu ikusgarririk izan ez badugu ere, badira euskal usadioan arao eta formula magikoetan han-hemenka aurkitzen diren patroï fonologiko bereziak. Antzinate klasikotik *voces magicae*-ak arketipikoki «asema», «atopa» eta «barbara» izaten ohi dira; esanahirik gabekoak, tokiz kanpo daudenak, eta arrotzak.²⁰ Esaterako, mundu mailan hedatuen dagokeena —hainbat eta hainbat hizkuntzatan erabiltzen dena— *abrakadabra* famatua izango da seguruen, edozertarako gai diren botere magikoz hornitua omen dagoena.²¹

Badira euskal usadioan herri-ipuin eta kantetan agertzen zaizkigun antzeko forma itxuraz zentzugabeak. Horietan ezagunenetarikoa, seguruen, *baga, biga, higa...* forma dugu, goranzko kontaketa desitxuratu baten antzekoa dena, baina funtzio bereziturik gabekoa, dakigula. Hona Azkuek (1947: 291) Baiona aldean jasotako bertsoia:

- (19) Baga, biga, higa,
laga, boga, seiga,
Zahi, zohi, bela,
harma, tiro, punp.

Honekin batera ere badira bestelako haur-jolasetan erruz agertzen diren forma asemak; hauek ere funtzio magiko zehatzik gabe. Hona, adibidez, Xarles Videgainek (kom. perts.) Larzabalen (Oztibarre) bildutako *arlarlarla*-ren bertsoia:²²

- (20) Arlarlarla, kinkuan kin, portan sal eta portan min, xedera medera, xilkuan kin, urbero klin.

Benetako euskal *voces magicae*-ei gagozkiela, agian ezagunena W. Websterrek *Jesus Christ and the Old Soldier* ipuinean ematen duena izango da (Senpereko M. Larralderi 1875-12-03an jasotakoa, ik. Webster 1877: 199-200). Websterrek jasotakoaren arabera, formula *asema* baina erabat euskal itxurako honekin zernahiz bete zitekeen zaku bat: urrez, zikiroz, zein deabruz.²³

- (21) Artchila murtchila!

(21)-n euskal formula askotan ikus daitekeen errepikapen partziala dugu (*cf.* oraintxe ikusitako (19)-ko *arlarlarla* bera, edota *arriola marriola* ezaguna, besteren artean; ik. Lertxundi (1996), Arranz (2006) eta Igartua (2013). Honelakoetan, ope-

¹⁹ Aipagarria da JAN adierazten duen hitza *ma-modyèrèn ez dela* bediken esanahi hori duen erroaren gainean artikulazio-puntuaren alderantzizkatze bidez egiten, metafora baten gainean baizik (hizkuntzaren izaera sekretua areagotzen duena, inondik ere). Honela, jateko (zein edateko), makurtu egiten dela aintzat hartuta, *o-hojèn* (makurtu) hartzen da oinarrian.

²⁰ Horretaz gain, *voces magicae*-ak bestelakotasun gehigarri ere osatuak izan dira; adibidez, idatziz jartzerakoan ezkerreko eskuarekin egiteko agindua zegoen, edota eskuinetik ezkerretara idatziz, edota letrak buruz behera jarrita (ik. Heim 1892; Versnel 2002).

²¹ Diotenez, *Abraxas* edo *Abrasax*-etik heldu dena (Nelson 1946); *Abraxas* bera II. mendeko Basiliides heresiarka gnostikoak asmatu omen zuen (Perona 2019).

²² Azkue eta Lekuonarenez gain, ikus ere Arranzek (2006) egindako euskal hitz-jokoaren bilduma-lan bikaina.

²³ Azken urteotan Txan Magoak hartu eta hedatu duen formula magikoa dugu *artxila murtxila*.

razio-konbinaketa bat egiten da: (i) inputaren azken ebakinaren ostean aurrekaritza-erlazio berri bat ezartzen da /m(V)/ sekuentziarekiko, (ii) beste aurrekaritza-erlazio berri bat ezartzen da /m(V)/ sekuentziatik aingura-segmentura (kasu honetan /r/-ra), eta (iii) egitura linearizatzen da:^{24, 25}

$$(22) \quad a \rightarrow r \rightarrow t_f \rightarrow i \rightarrow l \rightarrow a$$

Formula honen aldaki bat Barbierrek (1925) jasotzen du, baina kasu honetan (21)-eko oinarriaren errepikapenezkoa beharrean, oinarriaren forma konplexuagoa du zuzenean:

(23) Trentekutchilo!

Forma eufoniko honetan euskal *voces magicae*-en bereizgarri den eredia aurki daiteke: markatutasun fonemikoa. Ohar daitekeenez, (23)-ko forma silaba atake konplexu batekin hasten da (/tr-/). Honelakoak bi mailatan ekidin izan dira historikoki:

- (i) alde batetik leherkari ahoskabez hasten da, ahostuntzerako joera izan ohi duena (ikus beherago); eta
- (ii) bestetik *muta cum liquida* kontsonante-elkarketa du, hau ere historikoki hautsi izan dena (bokalen bat tartekatuz, metatesiz, edo beste operazioen baten bidez, ik. eusk. *gurutze* < lat. *crucem*; eusk. *lau* < lat. *plānus*,...).

Pentsa liteke, agian, behaketa hutsala dela, eta ez dagoela forma eta funtzioaren arteko kausalitate harremanik, murriztapen fonotaktiko hauek gaur egun indarrean ez daudelakoan, izan ere baditugu honelako sekuentziak egungo euskarazko hitzetan. Hala ere, eredu ideofoniko honen berariazkotasuna azpimarratu nahiko nuke. Hasteko, egun euskaraz /tr-/ hasierak baditugu ere, maileguetatikoak dira batik bat, eta oro har urriak euskal lexikoan.²⁶ Bestetik, *voces magicae*-ak printzipioz inongo eratorpen eta etimologiarik gabe hutsetik sortutako hitzak dira, eta espero beharko genuke, besterik ezean —eta hortxe dago gakoa, «besterik ezean»—, jatorrizko hizkuntzaren moldera sortuak izatea. Bada hau ez da hitz magikootan ikusten duguna; izan ere jasota dauzkagun gutxietan esanguratsua da patroi markatuen kopurua, jarraian ikusiko dugunez.

Adibidez, Susperregik (2011: 62-64) Oiartzunen bildutako sorgin-istorioetan bada Ali Babaren gisan erabiltzen den formula magiko bat (24) /tr/ sekuentzia markatu berbera erakusten duena, baina hitz barnean:

²⁴ Ik. Nevins & Vaux (2003)-n fonologikoki antzekoa izan daitekeen ingelesezko *shm*-errepikapenen analisi bat eta Igartua (2013)-n euskarazko *m*-errepikapenen iturburuen ikerketa bat.

²⁵ Errepikapen partzialetan /m(v)/-ren tartekatzea ohikoa bada ere badira forma alternatiboak ere, hala nola Behorlegiko zozomikoteen istorio batean (X. Videgainek jasoa, kom. perts.) martxoako hilabete pertsonifikatuari iseka egiteko artzain batek erabili omen zuen *Martxo xirtxi xertxo!* formula (martxoak ez omen zuen ongi hartu artzainaren iseka, eta apirilari egun batzuk mailegatuta elurrari ekin eta artzainari artalde osoa suntsitu omen zion).

²⁶ Esaterako, halakorik berariaz bilatu gabe, artikulu honek dituen 7.999 hitzetatik orain aipatutako *trentekutchilo*-z gain bakarrik beste sei euskal hitzek dute honelako hasiera: *transzendentalitate*, *trinitario*, *transkribaketa*, *tradizioan*, *tribunalak*, eta *trebezia*; mailegu gardenak, inondik ere.

- (24) a. Astalamustrika, ireki hadi!
b. Astalamustrika, itxi hadi!

Eta gauza berbera aurkitzen da lehen ikusi ditugun (14)-(15)-eko forma sasilatin-dar-sasieuskaldunetan (*Patrica, petrica*).²⁷

Beste markatutasun adierazpenak: adibidez, inork Etsai (deabrua) musukatu eta gero, oin batekin aitaren egiten zuen bitartean ondoko formula esaten bazuen sorgin bilakatzeko omen zen (komunitatearen begietara bederen):^{28,29}

- (25) Porla se, zalpaté, funte fa, funte fi, txiri, biri, ekatsu, ekatsu, amen.

Aurrekoetan bezala, azpimarratzekoa da formularen agertzen diren hitzak *asema* bada ere, haien forma ez dela inondik ere ausazkoa, izan ere hitzaren osakeran parte hartzen duten fonemak —eta haien distribuzioak— ez dira euskararen berezko lexikoaren ezaugarriekin egokien bat egin lezaketenak (ik. Michelena 1977; Hualde 2003; besteak beste). Bestela esateko, fonotaktikoki markatuak diren (edo orain gutxira arte behintzat hala izan diren) distribuzioak ikus ditzakegu formularen. Nabarmenki, hitz hasierako /p-/ leherkari ahoskabea aurkitzen dugu (*porla*), euskararen fonetika historikoan aktiboki ekidin izan dena (cf. lat. *pace* > eusk. *bake*; lat. *peccatu* > eusk. *bekatu*, etab.). Halaber, /f/ ezpain-horzkaria ere oparo agertzen da formularen (*funte fa, funte fi*, formulako hitzen heren batean). Hau euskararen berezko joeren aurka doa, izan ere oso urri agertzen da /f/ euskal hitzetan, eta berriki mailegatutako lexikoan batik bat (ik., besteak beste, Mitxelena 1977; Egurtzegi 2013; Irurtzun 2016). Azkenik, hitz-amaierako azentu-patroia ere aurki daiteke formularen (*zalpaté*), euskaraz (eta Gipuzkoan bereziki) nagusi den [+2] azentueraren aurka (ik. Hualde 1997, 1999, besteak beste). Elementu hauek guztiak formulari arrotasun fonetikoaren ematen diote, euskararen beraren hots-esparrutik gehiegi aldentu gabe.

Areago, sorgintzeaz gain, sorginez nolobait babesteko ere balio duke eredu fonologiko markatuak. (26)-koak ditugu sorginak uxatzeko erabili ohi diren formulak (Saint-Pierre 1951: 312; egun ere Iparraldeko herri-tradizioan bederen —ipuinetan eta— mantentzen direnak (G. Duguine; B. Oyharçabal, kom. perts.)):³⁰

- (26) a. Chirmi, charma pues.
b. Sorgina pues, pues, pues.

²⁷ Euskaraz /-tr-/ sekuentziaren markatutasunaren erakusgarri: artikulu honen euskarazko testuan (orotara 5,076 hitz —adibideak eta erreferentziak alde batera utzita—) beste 20 aldiz agertzen zaigu /-tr-/ segida (hauexetan: *sustraitutakoa, ilustratzeko, zentratuz, Australiako, letra, Satrustegik, patroia* (x3), *distribuzioak* (x2), *patroia* (x2), *kontrako, kontrakoa* (x2), *substratua, letrak, artritis eta dotrina*), euskarazko testuaren item lexikoaren % 0,39. Aldiz, erdaretako pasarteetan (ingelesa, gaztelania, frantsesa, latina) 20 agerpen ere baditugu testu-pasarteon batura 811 hitzetakoa besterik ez bada ere (hots, erdarazko lexikoaren % 2,46). Diferentzia estatistikoki esanguratsua da ($X^2 = 42,59$; $p < 0,00001$). Ikus beheerago euskal *voces magicæ*-en eta euskarazko orotariko corpus zabal baten konparaketa baterako.

²⁸ J.M. Barandiaranek Lazkaon jasoa, Barandiaran (1989: 36).

²⁹ Kontrakoa ere bada; Susperregik (2008: 68) jasotzen duenez, Oiartzunen urtzintz egitean sorginak gorpu barnera sar zitezkeela pentsatzen zen. Hori ekiditeko *doministiku* esan behar zen (< lat. *Dominus tecum*).

³⁰ Formulok hatz lodia indizea eta erdikoaren artean sartuta esan behar dira; Azkuek ere halaxe jaso zuen bere hiztegian. Thalamas-ek ere (1931) *puyes* aldakia jasotzen du.

Hemen ere baditugu bi elementu markatu: (i) euskaraz erabat salbuesenezkoa den hitz-amaierako /-s/ txistukari hobikaria,³¹ eta (ii) hitz hasierako leherkari gorra.³²

Hitz hasierako leherkari ahoskabeena beste sorginkeri-istoriotan ere aurkitzen dugun fenomeno da. Adibidez, 1611n Iruñeko apezpikuak egindako idazki batean inkisizioak Bortzirietan egindako ikerketen berri ematen du. Bertan aipatzen du nola herritarren konfesioen arabera, sorginek akelarrean haur berriak ekartzen zituztenez ondokoa abesten zuten (Henningsen 2021: 256):

(27) Tupulu tupu, orain ere gende berria dugu.

Formularen hasierako ideofonoa erabateko *vox magica* bat da, esanahirik gabeko elementu arrotzez osatua.³³ Bertan ere hitz-hasierako leherkari gor bat (/t-/) birritan errepikatzen da (*tupulu tupu*). Hau ere euskal hiztunen aho-belarrietan arrotza zitekeen (hein batean bederen), izan ere ezpainbikariak bezala, hortz-hobietako leherkari ahoskabeak ere ekidin izan dira euskararen historian (cf. lat. *tempora* > eusk. *denbora*; lat. *torre* > eusk. *dorre*, edo xx. mendean bertan gazt. *tamborrada* > eusk. *danborrada*, etab.). Laburbilduz, euskaraz hitz hasierako hortz-hobietako leherkari ahoskabeak berrixeak eta maileguetatikakoak dira; exotiko samarrak.³⁴


Horren erakusgarri, euskaraz dukegun testu-corpus osoenean (Leturia 2014 —orotara 186.072.822 hitz— egungo euskararen web presentziarekin egindakoa) guztira 3.198.737 hitz hasten dira /t/ soinuarekin (corpuseko hitzen % 1.71). Aldiz, artikulua honetarako jaso diren euskarazko *voces magica*-etan —dokumentazio lanean aurkitu ditudan guztietan— 11/80 ere badira hasierako /t/ soinudun hitzak (% 13,75), bi corpusen arteko aldea estatistikoki esanguratsua izanik ($X^2 = 68,53$; $p < 0,00001$). Grafikoki:

³¹ Esaterako, *Xuxen*-en hiztegi garaikidea osatzen duten 80.778 sarreretatik ez dira 300 sarrerara iristen hitz-amaieran /-s/ bat duten hitz arruntak, eta oro har mailegu gardenak dira (*aerobus*, *afrিকাans...*; haien artean latinetik *-itis* (*apendicitis*, *arthritis...*) edota *-us* (*angelus*, *campus...*) atzizkiekin amaitzen diren guztiak daudela).

³² Sorginak uxatzeko aurkitu dudana beste formulak ez du bortxaketa fonologikorik, baina bai sintaktikorik, *daiogun* adizki flexioduna baita (Barandiaran 1973: 86-70, 1974: 65). Barandiaranek (1974: 65) «creámoslo» gisara itzultzen du eta Duesok (1997: 119) «'hagámoselo', 'devolvámoselo', en el sentido de atacar a alguien o actuar contra alguien». Forma honek euskaraz flexiodun adizkiak perpauseko lehen posizioan agertzearen aurkako murriztapen orokorra hautsiko luke (*T1), aditz-forma multzo txiki batekin besterik hautsi ezin dena (non *da(g)iogun* ez den haietariko bat, dakidala), ik. Altube 1929; Ortiz de Urbina 1994; Elordieta & Haddican 2016; edota Duguine 2022 murriztapen honen gainean. Nolanahi ere, *daiogun*-ek aditz forma badu ere ez da batera argi benetakoa aditz/aditz laguntzaile bat dugunik hemen, izan ere usu *daiogun*-en erabilera ez dator bat honelako adizki batek eskatuko lukeen egoerarekin —oro har ipuinean subjektu bakan batek oguzitakoa da (hots, subjektuaren morfologia plurala tokiz kanpo legoke), eta datibo singularra ere nori legokiokeen ez dago argi.

³³ Ikus Ibarretxe-Antuñano (2017) euskal ideofonoen gainbegiratu baterako.

³⁴ Ohar ere Oihenartek deabruarentzat ematen duen zubererazko izena: *Tusuri* (Schuchardt 1914).



3. irudia

Elhuyar Web Corpusean *vs.* euskal *voces magicae*-etan lehen posizioan /t-/ soinua duten hitzak, hitz guztiekiko

Hasierako /t-/dun eredu bera aurkitzen da Burgiko 1569-70eko prozesuetan jaso zen formula batean. Sorginek meza kristauean apaizak ostia erakusten zuenean iseka egin eta ondoko formula esaten omen zuten, hasierako leherkari ahoskabedun *tiracan* tarteko (Idoate 1975: 254, 263):³⁵

- (28) Latacan, tiracan y Dios bast.
 (29) Latacan, tiracan, literna y dios bast.

Eta antzeko eredu bat aurki daiteke testigantza berriagoetan. Reicher-ek jasotzen duenez (Reicher 1946: 83), Euskal Herrian zehar akelarreetarako bidean taldean ibiltzen omen ziren sorginak («cohortes diaboliques»). Honela deskribatzen ditu:

En Cize, elles sont fréquentes et le nombre de récits qui se passent dans l'Akelarre de Çaro est presque infini ! Chacun dit le sien.

Pour tous, Akelarre est une grande « place » plate et brillamment éclairée pendant le sabbat. Or, nous l'avons dit, le lieu par endroits est impraticable, couvert d'épines et de ronces.

De Lecumberry, d'Esterençuby, d'Ascarrat, de Hosta, de Jaxu, les sinistres cortèges arrivent au rendez-vous.

³⁵ Ohar ere lehen ikusi dugun hitz-amaierako /-s/ ere badela *Dios/dios* formatan.

En marchant, ils chantent :

« toun, toun, touroupoutoun (*bis*)
ricou, ricou, ricou!
Mi, sol, fa, mi, ré, do (*bis*)
si, sol, si, sol »

Kasu honetan ere, eredu ideofoniko-magiko baten aurrean gaude: lexiko arrotz eta ase-maz gain, hitz-hasierako leherkari ahoskabeak (*toun, touroupoutoun*) eta hitz-hasierako dardarkariak ere baditugu (*ricou, ricou, ricou*).³⁶ Ezaguna da hitz hasierako dardarkariak ere euskaraz ekidin izan diren konfigurazioak ditugula (cf. lat. *rosa* > eusk. *arrosa*; lat. *Roma* > eusk. *Erroma*, edo berrikiago fr. *rugby* > eusk. *errugbi*, etab.).³⁷ Kantuaren bigarren partea, bistan denez, noten sekuentzia bat da. Pentsatzekoa da melodia horri dagokiola sorginen kantua, testuko silabak nota banarekin alineatuta. Honelakoxe zerbait, adibidez:



4. irudia

Reicher (1946) lanak jasotako sorginen musikari egokitu dakioken partitura

Azkenik, antzeko ebidentzia ere agertzen zaigu Logroñoeko Inkisizio-tribunalak 1725ean Nafarroan eta Calahorran egiten omen ziren sineskeriazko sendaketa-erritu batzuen debekuetan.³⁸ Erabiltzen omen ziratekeen formulen artean basasuaren (her-

³⁶ Antzeko egitura batzuk ikus daitezke funtzio argirik gabeko zenbait euskal kantatan, baina oro har /c/ palatalarekin (eskerrik asko Varun deCastro-Arrazolari oharrengatik).

³⁷ Esan gabe doa, dardarkariena ez da euskararen bitxikeria bat, tipologikoki beste hainbat hizkuntzatan ere gertatzen dena baizik (Labruno 2021).

³⁸ Eliza katolikoak berariaz debekatutakoa. Povvreaux (1656: 120), Richelieuren *Guiristinoaren dotrina*-ren euskarazko moldaketan honela dio lehen mandamenduari huts egiten diotenak zerrendatzean:

- (i) «[...] nor ere eritalunen fendatceco feruitçatcen baita charmeriaz, elfconiuaracinoz, eta hitcez, hec guziec hutz eguiten dute Iaincoa Fedez adoratu gabez.»

Belapeyrek (1696), bere aldetik, hauxe (Davanten 1983ko bertsiotik: 79):

«G. Supersticios, eta aztiec nola edo certain houx eguiten die?


I. Gincoc eta harén Eliçac ordenatu eta usatu dutien Ceremonia eta erremedioac aski hon ediren gabez eta her ez fidaz, hitz arce elibatez, Cetatchucuz, Cegnharazucuz, (Etciteyela Deebrien lagun içan) boustaurez, çonbait belharrez, edo khandera honenbeste piztuz, Eriaren sendotcera, edo gaiça galdien edireitera, çoçnetan sartcen baita Deebriaren artecia aguerriez, edo eçavaki, besté orduz harekin norbaitec hitça harturic: Eta gaiçac beratçaz eztaidiana, edo gincoa ganic indar baten eguiteco hartu gabé, naturaz gaintico gaicen eguitera iarten direnac Caractero izkiribatu çonbaitcz, edo nola nahi.»

Hots, Davant-en itzulpena (in Arbelbide 2011: 115) harturik: «Jainkoak eta haren Elizak manatu eta usaiako zeremonia eta erremedioak aski on ez aurkituz eta haier ez fidatuz, hitz arrotz (arraro) batzuez, jestu bitxiz, basa zeinukaz (ez zaitezela deabruaren lagun izan), ur ihiztaldiz, zenbait belarrez eta honenbeste kandela piztuz, eriaeren sendatzera, eta gauza galduen kausitzera entseatzuz, hor deabruaren trebezia baliatuz agerian edo gordean, beste orduz harekin norbaitek hitz harturik, eta bere baitarik ezinezko gauza edo Jinkoa ganik indar baten egiteko hartu gabe, naturaz gaindiko gauzen egitera jartzen direnak karaktera izkiribatu zonbaitcz edo nola nahi».

pesaren) kontrako bat dugu, ondoko formularekin sendatzen omen zena (de Ascarate 1924; Etnikerren *Euskal Herriko Atlas Etnografiko*-tik hartua):

(28) Vasasua, Ichasua, ozanera, y ducaelen semearquen semeo-robano Jaunchecago.

Berriz ere, *voces magicae*-etan euskararen fonotaktikarekin bat ez datorren patroia ikusten dugu *semeo-robano* elkartuko bigarren osagaiaren hasierako dardarkarian. Berriz ere, Elhuyarren Web Corpusarekin erkatzen badugu, 625.889/186.072.822 (% 0,33) dira bertan aurkitzen ditugun /r-/ hasieradun tokenak —tartean jatorri arro-tza duten izen berezi andana izanik (Repsol, Russell, RoboCup2000...)—; euskal *voces magicae*-etan aldiz 4/80 (% 5), alde esanguratsua ($X^2 = 51,9$; $p < 0,00001$) (5. irudia).



5. irudia

Elhuyar Web Corpusean vs. euskal *voces magicae*-etan
lehen posizioan /r-/ soinuak duten hitzak, hitz guztiekiko

De Lavieuvillek (1733: 108, G. Harosteguy-ren itzulpenean):

«G. *Nola eguiten da bekbatu supersticionez ?*

I. Eliçac aprobaten ezdituen halaco cembait hitz fuer tetan , edo obferbacione banotan bere fidancia içanez eta eçarriz.

G. *Emaçu horren exemplu bat.*


I. Supersticionez bekbatu eguiten dute cembait hitz fuerteren berthutez eritafunetariç fendatu ufté dutenec, edo etcheac edo berce cerbait erretetic guibelatu ufté dutenec , edo berce cembait arrifcu gaichtoariç hala efcapatu ufté dutenec.»

Azkenik, Jauffretek ere (1902: 77) oso antzeko ideia ematen du bere katiximan:

«G. *Cer da Superstionea ?*

I. Superstionea da, uste izaitea holaco edo halaco hitceç, edo obrec, baduketela naturalezaz goragoco cerbait indar, Jaincoac eman ez diotena.»

Lan honetan identifikatu ditugun markatutasun-iturburu guztiak batuta, honelakoa da corpus naturala (Elhuyar Web Corpora) *vs.* supernaturalaren (*Voces magicæ*-ena) arteko alderaketa:³⁹



6. irudia

Elhuyar Web Corpus-ean *vs.* euskal *voces magicæ*-etan patroi fonologiko batzuen arabera markatuak diren hitzak, hitz guztiekiko

Corpus natural garaikidean % 7,83 (14.577.013/186.072.822) da fonologikoki markatua, corpus supernaturalean aldiz % 38,75 (31/80), nabarmenki gehiago ($X^2 = 316,13$; $p < 0,00001$).⁴⁰ Hau da, badirudi oro har formula magikoak sortzerakoan

³⁹ Grafika eta kalkulu honetan ez da kontuan hartu *zalpaté* formaren markatutasun prosodikoa, *Elhuyar Web Corpusean* halakorik identifikatzeko zailtasunak direla-eta (corpusa ez dago euskalkika banatua eta marka diakritiko guztiak ez dute zertan azentualak izan (badira, adibidez, *Yorùbá* edota *Réné* bezalako formak)). Halaber, ikusi dugu *pues* forma bi arrazoiengatik dela markatua (hasierako /p-/ eta amaierako /-s/); kopuruak artifizialki ez hanpatzeko ez da birritan zenbatu, eta *Elhuyar Web Corpus*-ean ere ez da amaierako /-s/-dun formarik bilatu konparaketarako. *Trentekutchilo* ere markatu bikoitza da (/t-/ + /tr/), baina kalkulurako hitz bakartzat hartu da (/t-/ hasieradunen sailean), eta halaber jokatu da *Elhuyar Web Corpus*-eko forma analogoekin.

⁴⁰ Eta kontuan izatekoa da *Elhuyar Web Corpus*-eko emaitzak ez direla halabeharrez euskal corpus garbizaleenaren ordezkarri.

ez dela ez logatomoekin ez eta ausaz egin; aitzitik, euskararen ohitura eta balizko adierazpen multzoaz haratago joatea bilatu izan dela, markatutasun fonologikoa helburu.

4. Ondorioak

Gizakiok oso gure dugu mintzamina, nolabait esateko hitz egiteko *gogoa* dugu («gogoa»-ren anbiguotasuna lagun: gogamena & desira). Hizkuntzarekin dugun erlazio intimoaren adierazle ere badira haren erabileratik ondorioztatzen ditugunak. Hizkuntza bat menderatzeak hainbat mailatako ezagutzak inplikatzeko ditu; hitz-ondare bat barneratuta izan behar da, inbentario eta arau fonologikoak, morfo-sintaxizko egituraketa-arauak, eta interpretazio semantikoen prozedurak. Honelako sistema intentsional bat partekatzen duten pertsonak hizkuntza bera hitz egiten dutela aintzat hartzen da, eta ondorioz, maila batean behintzat, talde berekotzat jotzen dira. Interesgarria da, ordea, aldentzea bera nola erabil dezakegun, oro har, zenbait ondorio esanguratsutarako: gu normalak bagara, gu ez bezalakoak ez-normalak dira. Eta haientarako bi herri-irakurketa egin izan dira; dela ez direla gu bezain bikainak, dela guk ez ditugun botereak dituztela.

Euskal formula magikoen gainbegiratu azkar honetan ikusi dugunez, euskaldunek magikotasuna bilatu izan dutenetan fonologikoki markatuak diren ereduak bila joan dira, euskaraz jada hein batean barneratuak ziren baina oraindik ere arrotz usaina zuten (eta duten) sekuentzia fonikoak begiz joaz. Soinuen arrotzetasunak exotismoaz gain bestetasuna ekartzen baitu, eta komunitatearen begietara sinisgarriago gertatzen baita hein batean gu ez bezalako den batek botere supernaturalak izatea, gu bezalako baten bano. Horrexetan datzake fonologiaren magia.

Erreferentziak

- Adams, Robert Frederick George. 1947. Oberi Okaima: A new African language and script. *Africa: Journal of the International African Institute* 17(1). 23-34.
- Altube, Seber. 1929. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka.
- Arbelbide, Xipri. 2011. *Sorginak (Lehen eta orain Afrikan eta hemen)*. Elkar: Donostia.
- Arranz, Iñaki. 2006. *Hitza azti*. Irun: Alberdania.
- Arzadun, Juan. 1909. Las brujas de Fuenterrabía: Proceso del siglo XVII. *RIEV* 3. 280-290.
- Ascarate, Tomás de. 1924. De Historia Navarra. Supersticiones. *Juventud Católico-Obrera* 18. 2-3.
- Azkue, Resurrección María de. 1935. *Euskaleñaren yakintza (literatura popular del País Vasco), I*. Madril: Espasa-Calpe.
- Azkue, Resurrección María de. 1942. *Euskaleñaren yakintza (literatura popular del País Vasco), II*. Madril: Espasa-Calpe.
- Azkue, Resurrección María de. 1947. *Euskaleñaren yakintza (literatura popular del País Vasco), IV: Ipuin ta t[i]rakurgaiak = Cuentos y leyendas*. Madril: Espasa-Calpe.
- Barandiaran, José Miguel. 1960. *Mitología vasca*. Madril: Minotauro.
- Barandiaran, José Miguel. 1973. *Obras Completas*, II. lib. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, Jose Miguel. 1974. Sorguin, Belaguile, Brujas. *Munibe* 1-2. 63-66.

- Barandiaran, Jose Miguel. 1989. *Brujería y brujas: Testimonios recogidos en el País Vasco*. 2. argit. Donostia: Txertoa (1. argit., 1984).
- Barandiaran, Jose Miguel. 2007. *Mitos del pueblo vasco*. Donostia: Herritar Berri (1. argit., 1989).
- Barbier, Jean. 1925. Ichtorio-michterio: Jesus Jauna eta Doni Petri – XVIII Trentekutchilo. *Gure Herria* 6. 326-332.
- Bächtold-Stäubli, Hanns & Eduard Hoffmann-Krayer. 1987. *Handwörterbuch Des Deutschen Aberglaubens Vollständig*. Berlin: Walter de Gruyter (1. argit., 1927).
- Belapeyre, Athanase. 1969. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Gincó Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*. Paue: Jerome Dupoux (Berrargit. Jean Louis Davant [arg.]. Bilbo: Euskaltzaindia, 1983).
- Bennett, Brian P. 2018. *Sacred Languages of the World: An Introduction*. Oxford: John Wiley & Sons.
- Bickerton, Dereck. 2009. *Adam's Tongue: How Humans Made Language, How Language Made Humans*. New York: Hill & Wang.
- Bidador, Joxemiel. 1994. Euskal formulakuntzaren hurbiltze baterako. *EGAN* 47(2). 65-144.
- Bilbao, Gidor. 1994. XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: *Liber Sancti Iacobi V*, 7. *Uztaro* 10. 61-84.
- Caro Baroja, Julio. 1992. *Brujería vasca*. 5. argit. Donostia: Txertoa (1. argit., 1975).
- Christiansen, Morten H. & Simon Kirby. 2003. Preface. In Morten H. Christiansen & Simon Kirby (arg.), *Language Evolution*, vii-ix. Oxford: Oxford University Press.
- Crystal, David. 1998. *Language Play*. Chicago: The University of Chicago Press.
- De Lancre, Pierre. 1612. *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons, ou il est amplement traicté des Sorciers et de la Sorcellerie*. Paris: Jean Berjon.
- De Lavieuvville, Pierre Guillaume. 1733. *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima, lehenbico comunionea eguitera preparatcen diren haurrentzat*. Baiona: P. Fauvet.
- Dueso, José. 1997. *Cuentos y leyendas de la Euskal Herria fantástica: BRUJAS*. Donostia: Roger.
- Duguine, Maia. 2022. FOFC as a PF phenomenon: Evidence from Basque clausal embedding. *Glossa* 7.1. <https://doi.org/10.16995/glossa.5745>
- Egurtzegi, Ander. 2013. Phonetics and phonology. In Mikel Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*, 119-172. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Elordieta, Arantzazu & Bill Haddican. 2016. Strategies of verb and verb phrase focus across Basque dialects. In Beatriz Fernandez & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, 221-242. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.08elo>
- Ferry, Marie-Paule. 1981. Les ganles tecreses des des ndéta (les langues secrètes des tenda). *Objets et mondes* 21. 173-176.
- Fiorentini, Ilaria. 2013. «Zomg! Dis iz a new language»: The case of Lolspeak. *Newcastle Working Papers in Linguistics* 19(1). 90-108.
- Fitch, W. Tecumseh. 2010. *The Evolution of Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Fonseca, Luis de. 1611. *Relacion summaria del auto de la fe que los señores doctor Alonso Bezerria Holguin, del Abito de Alcantara, Licenciado Ioan de Valle Aluarado, Licenciado Alonso*

- de Salazar Frias, inquisidores Apostolicos en el Reyno de Nauarra y su destricto, celebraron en la ciudad de Logroño, en siete y ocho dias del mes de Nouiembre, de mil y seyscientos y diez años.* Burgos: Iuan Baptista Varesio.
- Fortea, José Antonio. 2004. *Summa Dæmoniaca*. Benasque: Dos Latidos.
- Friederici, Angela D. 2017. *Language in our brain: The origins of a uniquely human capacity*. Cambridge: MIT Press.
- Garate, Justo. 1952. Un diccionario mágico vasco. *Revista Príncipe de Viana* 46-47. 217-223.
- Garmendia-Larrañaga, Juan. 2007. *Beti ortodoxoak ez diren konjuruak*. Donostia: Eusko Ikaskuntza (1. argit., 2000).
- Hale, Kenneth L. 1973. Deep-Surface canonical disparities in relation to analysis and change: An Australian example. In Henry M. Hoeningwald (arg.), *Diachronic, Areal, and Typological Linguistics*, 401-458. Berlin: De Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783111418797-018>.
- Heim, Ricardus L.M. 1892. Incantamenta magica græca latina. *Jahrbuch für Classische Philologie* 19. gehigarria. 465-575.
- Henningsen, Gustav. 2021. *En busca de la verdad sobre la brujería: los memoriales del inquisidor Salazar y otros documentos relevantes sobre el auto de fe de 1610*. Iruñea: NUP.
- Hualde, José Ignacio. 1997. *Euskararen azentuerak (ASJUren Gehigarriak 42)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, José Ignacio. 1999. Basque Accentuation. In Harry van der Hulst (arg.), *Word Prosodic Systems in the Languages of Europe*, 947-994. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Segmental phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*, 15-65. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hutton, Ronald. 2017. *The Witch: A History of Fear, from Ancient Times to the Present*. New Haven & Londres: Yale University Press.
- Ibarretxe-Antuñano, Iraide. 2017. Basque ideophones from a typological perspective. *The Canadian Journal of Linguistics / La revue canadienne de linguistique* 62(2). 196-220. <https://doi.org/10.1017/cnj.2017.8>
- Idoate, Florencio. 1951. Brujerías en la montaña navarra en el siglo xvi. *Hispania Sacra* 4. 301-321.
- Idoate, Florencio. 1975. Un proceso de brujería en Burgui. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 7(20). 225-276.
- Idoate, Florencio. 1978. *La brujería navarra y sus documentos*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- Idoate, Florencio. 2001 [1975]. Los brujos del valle de Araiz. *Príncipe de Viana* 223. 545-555.
- Igartua, Iván. 2013. La reduplicación compleja en euskera: notas acerca de su formación y sus paralelos en otras lenguas. *FLV* 116. 5-29.
- Irurtzun, Aritz. 2016. Fonema kontsonantikoaren banaketa estatistikoa euskal hitzetan zehar. *Lapurdum* 19: 341-355. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3438>
- Irurtzun, Aritz. 2022. Elements for a cultural evolution of supernatural ritual languages. In Andrea Ravignani, Rie Asano, Daria Valente, Francesco Ferretti, S. Hartmann, Misato Hayashi, Yannick Jadoul, Mauricio Martins, Yohei Oseki, Evelina Daniela Rodrigues, Olga Vasileva & Sławomir Waciewicz (arg.), *Proceedings of the Joint Conference on Lan-*

- guage Evolution (JcoLE)*, 340-347. Nijmegen: Max Planck Institute for Psycholinguistics. <https://doi.org/10.17617/2.3398549>
- Jauffret, François-Antoine. 1902. *Catichima edo fedea laburzki*. Baiona: L. Lasserre.
- Kendon, Adam. 1988. *Sign Languages of Aboriginal Australia: Cultural, Semiotic and Communicative Perspectives*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Labrune, Laurence. 2021. Word-initial rhotic avoidance: a typological survey. *Glossa: a journal of general linguistics* 6(1). 9. <https://doi.org/10.5334/gjgl.922>
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Langdon, Margaret. 1978. Animal talk in Cocopa. *International Journal of American Linguistics*. 44(1). 10-16.
- Lehmann, Alfred. 1898. *Aberglaube und Zauberei von den ältesten Zeiten an bis in die Gegenwart*, 1. lib. Stuttgart: Ferdinand Enke.
- Lekuona, Manuel. 1921. Lenguaje empleado con los animales domésticos. *Anuario Eusko Folklore* 1. 37-42.
- Lekuona, Manuel. 1923. Creencias y ritos funerarios en Oyarzun. *Anuario Eusko Folklore* 3. 76-90.
- Lertxundi, Anjel. 1996. *Letrak kalekantoitik*. Irun: Alberdania.
- Leturia, Igor. 2014. *The Web as a Corpus of Basque*, Donostia: UPV/EHUko doktorego tesia.
- López-Gurpegui, Félix-Tomás. 2011. *Martín de Andosilla y Arlés. De Superstitionibus*. Madrid: Cultiva Libros.
- Mair, Lucy Philip. 1969. *Witchcraft*. New York: McGraw-Hill.
- Michelena, Luis. 1964. *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid: Minotauro.
- Michelena, Luis. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961).
- Mongastón, Juan de. 1611. *Relación de las personas que salieron al Auto de Fe que los señores don Alonso Becerra Holguin, del hábito de Alcántara, licenciado Juan Valle Alvarado, y licenciado Alonso de Salazar y Frias, inquisidores apostólicos del reino de Navarra y su distrito, celebraron en la ciudad de Logroño en 7 y 8 días del mes de noviembre de 1610 años, y de las cosas y delitos por que fueron castigadas*. Logroño.
- Nelson, Axel. 1946. Abracadabra. *Eranos* 44. 326-336.
- Nevins, Andrew & Bert Vaux. 2003. Metalinguistic, shmetalinguistic: the phonology of shm-reduplication. *Proceedings from the Annual Meeting of the Chicago Linguistic Society* 39(1). 702-721.
- Oroz, Francisco José. 1981. Primera glosa vasco-latina en un libro impreso (1510). *Euskera* 26(1). 3-11.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua* 94(2). 125-153. [https://doi.org/10.1016/0024-3841\(94\)90023-X](https://doi.org/10.1016/0024-3841(94)90023-X)
- Peillen, Txomin. 1994. Herri-sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan. *Anuario de Eusko Folklore* 39. 9-224.
- Perona, Blandine. 2019. Between Erasmus and More, Abraxa(s), an Anamorphic Name. *Erasmus Studies* 39. 93-96.
- Pouvreau, Silvain. 1656. *Gviristinoaren Dotrina. Eminentissimo Iavn Cardinal Duke de Richelieuc egvina, Silvain Povvreav Apeçac Escaraz emana*. Paris: Jean Roger.
- Reicher, Gil G. 1946. *Les légendes basques dans la tradition humaine*. Paris: Adrien Maisonneuve.

- Saint-Pierre, Jean. 1951. Chirmi charma pues. *Gure Herria* 5. 312-313.
- Santazilia, Ekaitz. 2017. *Orye, lagunac*. Euskara nafarraren aztarnak xvi. mendeko hiru sorginkeria auzibidetan. *RIEV* 62(2). 374-406.
- Sapir, Edward. 1909. *Takelma Texts*. Philadelphia: The University of Pennsylvania Museum.
- Sapir, Edward. 1922. The Takelma language of Southwestern Oregon. In Franz Boas (arg.), *Handbook of American Indian Languages, Part 2*, 3-296. Bureau of American Ethnology, Bulletin 40. Washington, D.C.: Government Printing Office.
- Sarustegi, Jose María. 1970. Personajes populares relacionados con la brujería en Navarra. *FLV* 5. 183-229.
- Schlichter, Alice. 1981. Notes on the Wintu shamanistic jargon. In Alice Schlichter, Wallace L. Chafe & Leanne Hinton (arg.), *Reports from the Survey of California and Other Indian Languages*, N. 1, 95-130. Berkeley: University of California at Berkeley.
- Schuchardt, Hugo. 1914. *Tusuri* Teufel. *RIEV* 8. 2.
- Singh, Manvir. 2021. Magic, Explanations, and Evil: The Origins and Design of Witches and Sorcerers. *Current Anthropology* 62(1). 2-29. <https://doi.org/10.1086/713111>
- Smith, Neil. 2005. Chomsky's science of language. In James McGilvray (arg.), *The Cambridge Companion to Chomsky*, 21-41. Cambridge: Cambridge University Press.
- Storch, Anne. 2011. *Secret Manipulations: Language and Context in Africa*. Oxford: Oxford University Press.
- Susperregi, Xabier. 2008. Medicina popular en Oiartzun (Gipuzkoa). *Anuario de Eusko-Folklore* 47. 65-135.
- Susperregi, Xabier. 2011. *Sorginen liburua*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Thalamas, Juan. 1931. Contribución al estudio etnográfico del País Vasco continental. *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* 11. 1-120.
- Üthürralt Saint-Esteben, Iker. 2020. *Hartzaren figura euskal kulturaren*. Zarautz: Dakit.
- Versnel, H.S. 2002. The Poetics of the magical charm: An essay on the power of words. In Paul Mirecki & Marvin Meyer (arg.), *Magic and Ritual in the Ancient World*, 105-158. Leiden, Boston & Köln: Brill.
- Webster, Wentworth. 1877. *Basque Legends: Collected Chiefly in the Labourd*. Londres: Griffith & Farran.
- Xygalatas, Dimitris. 2022. *Ritual: How Seemingly Senseless Acts Make Life Worth Living*. Londres: Profile.